

Elkarrekin


Caritas
 Gipuzkoa

☎ 943 44 07 44 • idazkari@caritasgi.org • www.caritasgi.org

10

LOTURAK ETA BIHOTZAK

Bizitza zoriontsua izateko ezinbestekoa da sendi baten parte sentitzea, familia handi baten kidea non elkar zaindu eta babesten dugun. Pertsona izatea. Gizarte irekia eraiki nahi dugu, inor baztertzeko ez duena: egoera larriak pairatzen ari direnekin konpromisoa hartuz eman dezakegu urrats hori. Ondorioz, nahitaezkoa da parte hartze aktiboa izatea behar gehien dituzten pertsonekin. Ingurukoek pairatzen dituzten zailtasunez jabetu behar dugu, eta beharrezko dauden pertsonak, ekonomia arazoengatik, gaixotasunagatik, askatasun-gabetzeagatik, etab. lagundu behar ditugu. Beraien alboan egon behar dugu.

Denon ardura da anaia-arreben komunitatea eraikitzeko lan egitea. Ez dugu pentsatu behar beste norbaitek egingo duela, izan ere gutariko bakoitzak parte hartze zuzena izan beharko luke bidezko komunitate irekia eraikitzeko.

Baina guk, hau guztian, zer egin dezakegu? Pertsonen aldeko apustu tinkoa bultzatu. Bide batez, gure sendi eta laneko ingurunea eralda dezakeen bizitza estilo bat hartzea da gure ardura. Jarrera indibidualistak, berekoiak eta gutxiespen jarrerak saihestu behar ditugu, eta betiere koherenteak izaten saiatu behar dugu gure pentsamendua eta gure ekintzek bide berbera jarrai dezaten.

Sozio-karitatezko (Osasun eta Espetxe Pastoraltza eta Caritas) kanpainaren leloak dion bezala –'Loturak sortu eta bihotzak topatuko dituzu'– maitasun eta anaitasunarekin jokatzeko dugunean, bide berriak ireki eta askapen esparruak ahalbidetzen ditugu sufritzen ari denari harrera, laguntza eta babesa eskainiz.

Elizbarrutiko gizarte-karitatezko zerbitzuek 'lokarrak sortzea' azpimarratzen dute, hau da, kate hautsiezko batean elkarri lotzeko, anaiarteko eta lankidetzako erantzukidetasunez bizitzeko. Horrela jokatzeko, bihotzekin egingo dugu topo. Beste bihotzekin. Anaiarte-




«Ez dugu pentsatu behar beste norbaitek egingo duela, izan ere gutariko bakoitzak parte hartze zuzena izan beharko luke bidezko komunitate irekia eraikitzeko»

«Maitasun eta anaitasunarekin jokatzeko dugunean, bide berriak ireki eta askapen esparruak ahalbidetzen ditugu sufritzen ari denari harrera, laguntza eta babesa eskainiz»

ko gizarte bat eraiki behar dugu denon artean. Ezin dugu ahulagoaren aurrean isilik eta harriturik gelditu. Ez dugu pentsatu behar egin-kizun hori beste norbaiti dagokionik. Guztiook dugu geure zeregina. Loturak sortu ahala bihotz alaiak topatuko ditugu. Irten gaitezen bihotz bila. Batu ditzagun bihotzak.

● erreportajea



HOTZALDIREN BEROTASUNA
 Kale gorrian dauden pertsonak aterpetzeko egoitzak hamar urte bete ditu, eta bi erlijio-komunitateren eskuzabaltasunari esker bidea egiten jarraitzen du.

● boluntarioaren ahotsa



◀ *Mi labor de voluntariado cubre una necesidad en mi vida que es devolver el amor que recibo, a través de la relación de ayuda. Mi formación, al margen de mi trabajo, ha estado siempre enfocada a adquirir herramientas para ayudar y acompañar a los demás desde el respeto, la escucha y el interés genuino. El voluntariado me hace crecer como persona, reafirmarme en mis valores, tener un espacio para compartir mi forma de entender lo que para mí es básico en la vida: las relaciones interpersonales respetuosas y enriquecedoras. Tanto mi familia como mis amigos se interesan por lo que hago, me preguntan, me escuchan con atención... conocen otras realidades que permanecen ocultas para la mayoría y se sensibilizan con ellas.* ▶

CREA LAZOS Y ENCONTRARÁS CORAZONES


Nuestra Iglesia sigue caminando en la misericordia de un Dios entregado en la Cruz del amor salvador que, recupera al perdido y resitúa a cualquiera que busque paz, justicia y verdad, tal como el papa Francisco nos empuja a vivir con una ilusión desbordante. Nuestros obispos también nos han escrito una Carta pastoral en el mismo sentido, referida a la "misericordia entrañable" de nuestro Dios. Misericordia que estamos llamados a acoger en la convivencia social y en la pacificación, en las familias, los matrimonios y la defensa de la vida, en la educación y la cultura, en la entrega a los pobres, los enfermos, los encarcelados, sus familiares y especialmente las víctimas de tantas y tantas desgracias que asolan este mundo.

Estamos a las puertas de la Pascua. La Semana Santa no es cualquier cosa en la vida cristiana. Es la realización sintetizada de toda la vida de la Iglesia que camina en la fe acogida como regalo de un Dios a nuestro servicio, entregado para que todos tengamos la esperanza de un futuro bueno y justo, desde una caridad que abre todas las puertas a la verdad, a la justicia y a la paz para aquellos que descubren la vida como necesitada de la luz de eternidad, que es la resurrección.

Jaso bihotzak eta bizi Aste Santua itxaropen iturri bezala. Ez da erreza pozik bizitzea egunerokoan; agian zailago esperantza indartzea, beti baitauzkagu mila arazo eta oztopo bidean: gaixoaldiak, ezintasunak, krisiak eragiten dituen oztopoak, geure buruarekin lasai egon ezinak... eta zenbat sufrimendu munduan zehar!

Oraingoan ere Elizbarrutian ari garen gizartearen aldeko lana indartu asmoz gatoz, aurtengo kanpaina dela eta: "Loturak sortu eta bihotzak topatuko dituzu". Hau da ikur hitza. Ederra. Esanguratsua. Geurea egitea dagokigu, apal-apal. Pozik hartu behar dugun gurutze bidea da salbamen iturria. Piztuera sendagarria.

Xabier Andonegi Mendizabal



CALOR Y COLOR

El grupo de Tercer Mundo de Deba, se dedica a la cooperación con entidades eclesiales de otros pueblos e impulsa un programa de acciones solidarias (Comercio Justo, tienda de artesanía...) y educativas (charlas, cafés tertulia...) para apoyar diferentes iniciativas sociales destinadas, por ejemplo, a la diócesis de San (Malí) o a las Religiosas Mercedarias (Haití).

Además de estas actividades, el pasado año, aprovechando que a algunas componentes del grupo les gusta tejer, pusieron en marcha la iniciativa **Mantas Solidarias**. Con el apoyo del párroco de Deba, Patxi Azpitarte, acordaron impulsar una actividad que fuera de todas y en el que invertirían tiempo, habilidad y el cariño que supone tejer.

A lo largo del pasado año fueron solicitando ovillos de lanas a distintos fabricantes, a tiendas especializadas, y naturalmente a la ciudadanía para la confección de las mantas. La respuesta fue fantástica. Muy generosa. Tras lograr la lana, se repartieron el trabajo. Cada componente del grupo, fue confeccionando en su casa, a punto o a ganchillo, cuadro de 20x20 cm. Con la unión de los diversos cuadros de lana se han ido elaborado las diferentes mantas. Además de las personas que componen el grupo, han participado en la iniciativa "otras muchas mujeres de Deba que además de tejer, nos han orientado; su trabajo ha sido maravilloso".

Paso a paso, el grupo ha confeccionado un gran número de mantas con el objetivo de dar calor y color a diferentes personas. Calor, para superar mejor el frío, y color, para proporcionar alegría, aspecto también importante. Las mantas han sido distribuidas entre las personas más necesitadas de Deba y en proyectos de CARITAS GIPUZKOA.

A pesar de que la actividad del grupo es la Cooperación Internacional, el equipo pensó que las personas destinatarias también fueran las que tenemos más cercanas, y sobre todo, las más desprovistas: "Queríamos aportar algo que saliera de la nada y se tornara en algo que alguien cercano pudiera necesitar". El proyecto **Mantas Solidarias** ha supuesto para el grupo un objetivo común: "Dar **calor y calor** a los más necesitados partiendo de una actividad colectiva y gratificante".

Hezetasuna. Elurra. Kazkabarra... Zerrenda luzea. Neguaren hiztegiaren ageri diren hitzak. Hotza. Hotz-ikara. Beste bi hitz esanguratsu. Hotzaldik, aldiz, berotasun fisiko eta giza berotasunaren aterpe izatea du helburu. Kale gorrian dauden pertsonak aterpetzeko egoitzak hamar urte bete ditu, eta bi erlijio-komunitateren eskuzabaltasunari esker bidea egiten jarraitzen du.



HOTZALDIREN BEROTASUNA

Bordeleko Familia Sakratuak Donostian duen komunitateko Maria Jesus Amondaraintzat (Amezketza, 1941) *Hotzaldi*, proiektu berezia da. Hurbilekoa. Hasiera-hasieratik ezagutzen du bere joan-etorria. "Gure etxe ondo-ondoan dugun eliza erabiltzen ez genuenez, Carmen Gurrea, administrazio lanak egiten zituenak esan zidan norbaitekin harremanetan jarri nadin erabilgarritasun bat eman geniezaion. Eta elkarriketa batzuen ondoren, CARITAS GIPUZKOAK *Hotzaldi* proiektua jarri zuen martxan. Duela hamar urteko kontuak dira horiak", gogoratzen du.

"Guretzat *Hotzaldi* aukera bat izan da premia dutenen alde zerbait egiteko. Hutsik genuen leku bat, beraien zerbitzuan jartzea", dio amezketarrak. "Horretaz gain, gure komunitatean badugu Afrikan egondako 90 urteko moja bat, Juliana Larraia. Zenbait hizkuntza ondo samar menderatzen dituen, gauero-gauero joan izan da hamar urtez, *Hotzaldira* etortzen zirenei harrera egin, eta beraiekin berbetan egitera. Ondoren komunitatera itzultzen zen lotara. Etxeko beste moja batzuk ere, *Hotzaldin* banatzen diren galtzerdi eta toallen garbiketan ere aritu izan dira. Hau da, ahal dugun heinean lagundu dugu". Hamar urteak, aitaren batean joan ei zaizkio Maria Jesusi.

Hotzalditik barrena ibili diren partaideak egoera gogorran egon arren, urte guztietan zehar ez da ia gatazkarik egon: "Hainbat lagun biltzen dituen proiektu baterako, hori oso azpimarratzekoa da", dio. "*Hotzaldi*, eliza hartzaile bat izan da; benetako Eliza", gaineratzen du Maria Jesusek, eta CARITAS GIPUZKOAKO boluntarioen laguntzarekin, *Hotzaldi* 'Beroaldi' bihurtu delakoan dago. "Orain harrera hobea egiteko tokiz aldatu da; *Hotzaldi* berria oso leku aproposa da. Beraz, kontentu gaude; pauso pozgarria izan da denontzat. Esku onetan utzi dugu guk hasitako bidea. Kandela elkarri emanez pasa genuen lekukoa".

LEKUKO HARTZAILEAK. "Komunitatearentzat -Angeluko Andre Mariaren Mirabeak- *Hotzaldi*, eraberritze bat izan da; eragingarri berri bat gure bizitzarako", dio Maria Angeles Atorrasagastik (Donostia, 1942). *Hotzaldi* berriak, lekaimiek duten lokal batzuetan hartu du ostatu. Bere aburuz "*Hotzaldiri* atek irekiz, gure kongregazioaren karismari erantzuten ari gara. Gure sortzailea Luis Eduardo Cestac apaiza (Baiona, 1801-1868), datorren maiatzaren 31ean beatifikatuko dute Baionan. Premia bati erantzunez ekin zion bere lanari: kale gorrian zeuden haur, eta prostitutei laguntzea. Leku bat bilatu zuen pertsona horiek inongo harresirik gabe bizi zitezten; aske eta naturarekin harremanean".

Ez zien arerio samurrei aurre egin apaizak. Dunak eta hondarra izan zituen arerio: "Jendeak zera esaten omen zuen: 'Cestacek lur horiek erosi

ditu haizeak barre egin diezaion! Hamasei aldiz ahalegindu zen pinuak landatzen. Egun, Angelu inguruan dauden pinuak berari esker daude zutik. Ez hori bakarrik, landaketa hark, dunek aurrera egitea galarazi zuen", gaineratzen du Maria Angelesek. "Beraz, gure etxeko atek zabaltzea eta *Hotzaldiri* sartzen uztea, gure karismari leialak izatea da. Cestac-ek zion bezala, 'Txiroekin lan eginaz, euren lagun egin, eta zor diegun arreta guztiaz ohartu nintzen".

Neguan hotz egin du. Noiz ez aurten. "Gauero *Hotzaldira* etortzen diren pertsonen eskua ematen diegun bakoitzean, eskuak hotz-hotzak dituztelako, edo giza kontaktua behar dutelako, guretzat, gure lana suspertzeko modua da. Gau askotan gerturatzen naiz *Hotzaldira* bertan daudenekin hitz egitera. Nahi duten bakar-bakarra, hurbiltasuna da", dio Mamik. Bere ile zuriarengatik, 'Mami' deitzen diote Maria Angelesi *Hotzaldira* joaten diren etorkinak. "Bordeleko Familia Sakratukoaren eskutik jaso genuen kandelak piztuta irauten ahaleginduko gara CARITAS GIPUZKOAK osatzen dugun guztion artean".



DIEZ AÑOS. MUCHAS NOCHES. MUCHOS SUEÑOS...

No han sido, ni son pocas las personas, tanto participantes como el voluntariado, que han acudido y acuden a diario por *Hotzaldi* (hogar para combatir el frío, coordinado por Laguntza Etxea y Aterpe). El centro abre sus puertas los 365 días del año. El voluntariado, como en todos los proyectos de CARITAS GIPUZKOAK, es una figura importante en *Hotzaldi*. Cada noche dos personas voluntarias, bajo la coordinación de educadores, permanecen con las 40 personas que acuden a descansar. La labor que desempeña el voluntariado en *Hotzaldi* es, acompañar... Es decir, estar cerca de las personas. El voluntariado de *Hotzaldi* dedica y comparte doce noches al año, una al mes, con las personas que acuden al centro. La puerta está abierta, ¿te gustaría ser voluntaria/o de *Hotzaldi*? Llámamos o escribenos: 943 44 07 44 borondat@caritasgi.org



Significado de la bandera del Pueblo Gitano: el color azul (el cielo), el color verde (la tierra), la rueda (los caminos, pueblos, países... recorridos por el pueblo gitano) y el color rojo de la rueda: la sangre derramada, los fallecidos a lo largo de la historia de manera injusta...

EL PUEBLO GITANO

El 8 de Abril de 1971, se celebró en Londres el primer Congreso Mundial del Pueblo Gitano, en el cual se hicieron oficiales los dos símbolos más importantes del Pueblo Gitano: su Himno y su Bandera.

Desde ese día, hace 44 años, cada año son más personas, asociaciones e instituciones públicas y privadas que se van sumando a la celebración del **Día Internacional del Pueblo Rrom**. Sin embargo, todavía sigue siendo la comunidad más rechazada y discriminada y, en algunos países de Europa, perseguida y aniquilada.

Las asociaciones Agifugi, Kamelamos Adiquerar, Romi Bidean, Fundación Secretariado Gitano y CARITAS GIPUZKOA, se muestran preocupados por la imagen social que se proyecta hacia el Pueblo Gitano. Esta imagen dista mucho de reflejar la heterogeneidad de este pueblo. Los casos de discriminación y rechazo siguen impidiendo que el Pueblo Gitano acceda en igualdad de condiciones a una vivienda digna, a un empleo normalizado y a una educación en la que la cultura e identidad gitana sea reconocida y respetada. Las cinco entidades quieren manifestar:

- El más absoluto rechazo a cualquier tipo de violencia y discriminación contra el Pueblo Gitano.
- Que la historia del Pueblo Gitano en este país, legítima a las personas gitanas que vivimos y trabajamos en Euskal Herria, para ser consideradas parte de él, pero con una cultura y lengua propias y reconocidas.
- Que los asuntos que afectan a la mejora de la situación del pueblo gitano, será posible con la labor conjunta, la colaboración y el apoyo mutuo entre las instituciones y entidades gitanas.
- Reivindicación del Pueblo Gitano como cultura presente en Europa desde hace siglos: derecho a ser nuestros propios representantes en los foros donde se diseñan los planes y las políticas dirigidas a nuestro Pueblo.
- Tenemos altas expectativas depositadas en aquellas personas electas de las próximas elecciones municipales y forales, para que nos escuchen, garanticen nuestros derechos y luchen desde las instituciones por el reconocimiento de todos los Pueblos desde políticas inclusivas así como en la lucha contra la discriminación. Con políticas específicas que promuevan el acceso al mercado laboral, con políticas que garanticen la finalización del periodo obligatorio de la enseñanza, con políticas que combatan la segregación residencial y con políticas que garanticen el acceso en igualdad al sistema sanitario.
- Queremos agradecer, a todas aquellas personas que se plantean como parte de su labor el apoyo a una causa justa; como es la de contribuir a que el Pueblo Gitano ocupe el lugar que le corresponde en la sociedad y tender nuestra mano, a todas aquellas personas, organizaciones e instituciones que quieran sumarse para seguir trabajando por el **Pueblo Rrom**.



MAILUA ETA ZIZELA. CARITAS GIPUZKOAk Andoainen duen Sorabilla egoitzan –gizarte bazterkeriaren arriskuan dauden gazteen harrera etxea- jo ta ke ari dira Ortzadar proiektuaren baitan lanean. Eta nola gainera. Tailer ezberdinak jarri dituzte martxan, okupazionalak, herritar eta bizilagunekin harremanak sustatzeko ekimenak, eta funtzio terapeutikoa duten egitasmoak (mermelada, xaboi... prestaketa). Bi ekimenek indar berezia hartu dute: eskultura eta musika-terapia tailerrek (astean behin). Eskultura tailerrean, eskaiolarekin lanean aritzeaz gain, harrizko eskulturak lantzen ari dira Xabier Laka, EHUKo Arte Ederretako irakasle, eta auzokidearen laguntzarekin duela ia urtebete. Gazteen irudimena, ametsak, erronkak eta barnean duten guztia azaltzeko baliabide aproposa.

agenda



BIDETIK - Sozio-karitatezko pastoraltzaren topaketa / Encuentro de la Pastoral Sociocaritativa

Hizlaria / Ponente : José Ignacio Calleja (Gasteizko Elizbarrutiko apaiza eta Moral Sozial eta Filosofiako irakaslea / Sacerdote de la Diócesis de Vitoria y profesor de Moral Social y Filosofía)

Maiatzak 16 de Mayo (larunbata / sábado)

10:00-14:00 (ondoren, bazkaria; a continuación, almuerzo)

Donostiako Seminarioa / Seminario de San Sebastián

Izen-emate epea / Plazo de inscripción: Maiatzak 11 de mayo

Info: 943 44 07 44 (Argiñe) / formazioa@caritasgi.org



«Sufrimendua ulertzea: aurre egiteko eta laguntzeko / Entender el sufrimiento: para afrontarlo o acompañarlo»

Hizlaria / Ponente : Iker Uson (Baketik)

Apirilak 27 eta maiatzak 4 // 27 de abril y 4 de mayo

17:00 - 19:00

Idatz liburutegiko aretoa / Salón de actos de la librería Idatz (Donostia / San Sebastián)

Izen-emate epea / Plazo de inscripción: apirilak 22 de abril

Info: 943 44 07 44 (Argiñe) / formazioa@caritasgi.org

Edukiak: sufrimendua ulertu; jatorrizko sufrimendua; sufrimenduen sailkapena; sufrimendua eta pazientzia; biktimizazioa eta biktimizazioa; zentzugabekeria eta zentzua; sufrimenduaren sakontzea; bizitarako oxigenoa.

Contenidos: Compresión del sufrimiento; clasificación de los sufrimientos; el sufrimiento y la paciencia; victimización y victimismo; sinsentido y sentido; profundizando en el sufrimiento; el oxígeno existencial.